

# BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 6314

*70/2021 EBAZPENA, azaroaren 30ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea zenbait udali udal-titulartasuneko musika-zentroak finantzatzeko zuzeneko dirulaguntzak emateko Erabakia.*

Gobernu Kontseiluak, 2021eko azaroaren 23ko batzarrean, zenbait udali zuzeneko dirulaguntzak emateko Erabakia onartu zuen, udal-titulartasuneko musika-zentroak finantzatzeko. Horrenbestez, behar bezalako publikotasuna izan dezan, hau

### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzen Aldizkarian argitaratzea zenbait udali udal-titulartasuneko musika-zentroak finantzatzeko zuzeneko dirulaguntzak emateko Erabakiaren testua. Eranskinean jasota dago.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 30a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO  
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 30EKO 70/2021  
EBAZPENARENA

Erabakia, Gobernu Kontseiluarena, zeinaren bidez zuzeneko laguntzak ematen baitzaizkie udalei, onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Hezkuntza Sailaren bidez) eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen arteko lankidetzak-hitzarmenaren eredu bat, udal-titulartasuneko musika-zentroak finantzatzeko laguntza publikoak bideratzeko, eta baita ematen baita zuzeneko laguntza horien onuradun diren udalekin lankidetzak-hitzarmenak izenpetzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko (aurrerantzean, ETEL) apirilaren 7ko 2/2016 Legearen zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagokio musika-irakaskuntzak, izan arautuak edo ez-arautuak, ematen dituzten zerbitzuen estandarrak definitzea, eta, horren arabera, dagokion herena finantzatzea, hitzarmen bidez ezarritako laguntza publikoak baliatuta –udalen ordezkariak eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldetik Hezkuntza Sailaren ordezkariak sinatuko dituzte hitzarmenok–, ikastegi horiek ETELEk indarra hartu orduko baimenduta badaude, betiere.

Bi administrazio publikoren arteko hitzarmena denez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 artikuluan jasotako hitzarmen tipologian sartuko litzateke.

Era berean, lege horren 14.4 artikulua xedatzen du toki-erakundeek eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez den beste jarduera, zerbitzu edo prestazio oro garatu ahal izango dutela tokiko komunitatearen intereserako, baldin eta, lege horretan azaldutakoaren arabera, arriskuan jartzen ez bada bikoiztasun-egoerarik sortzen ez bada eta erakundearen ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna.

Baina, aldi berean, lege horren hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera, ETEL indarrean jartzeko, eskumen propioen eremuan sartzen ez diren jarduerak, zerbitzuak edo prestazioak gauzaten ari diren eta eskuordetu edo transferitu ez diren toki-erakundeek jarduera, zerbitzu edo prestazio horiek garatzen jarraitu ahal izango dute, bikoiztasunik ez dagoela eta eskumen berriei dagokien finantza-iraunkortasuna justifikatu behar izan gabe.

Gainera, hezkuntzako eskumena duen Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, hau da, Hezkuntza Sailari, esleitzen zaio laguntza horiek emateko eta kuantifikatzeko betebeharrak; zehazki, lege-mailako arau baten bidez (kasu honetan, ETEL). Horregatik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.b) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zuzenean eman daitezke laguntza horiek, eta hori ematea Gobernu Kontseiluak onetsi behar du, sail interesduneko titularrak (kasu honetan, Hezkuntza Sailekoak) proposamena egin eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.7 artikulua xedatutakoa betetzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 10. artikulua arabera eta otsailaren 13ko 71/2021 Dekretuaren 4. artikuluan jasotako eskumenak erabiliz emandako eskumenetan oinarritzen da Hezkuntzako sailburuaren eskumena, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan ezarri direnekin eta indarreko legeriaren arabera bidezkoak direnekin bat etorrira.

Bestalde, alkateari dagokio udalaren ordezkari izatea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoa aplikatuta, eta Tokiko araubidearen gaietan

indarrean dauden xedapenen testu bateginak (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak esleitutako eskumenak erabilia.

Bat etorri azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.7 artikulua eskainitako bidearekin, laguntzak zuzenean ematea aurreikusten duenez, 14.638.325,00 euroko zuzeneko dirulaguntzak aurkeztea proposatzen da salbuespenez, Gobernu Kontseiluak onar ditzan.

Horregatik guztiagatik, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du:

### ERABAKIA

Lehenengoa.– Eranskinean zerrendatzen diren udalerriei 14.638.325,00 euroko zuzeneko laguntzak ematea, Hezkuntza Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren 21.07.22.0001.1.422.01.42241.001/T, 21.0.1.07.22.0001.2.422.01.42241.001/U eta 21.07.22.001.3.422.01.42241.001/V aplikazioen kargura, 2020-2021 ikasturtean eranskin horretan zerrendatutako kontserbatorioek eta musika-eskolek eskaintzen dituzten hezkuntza zerbitzuei dagokien herena finantzatzeko betebeharra betetzeko.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza izango da dirulaguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Hezkuntza Sailaren bidez) eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalen arteko lankidetzak-hitzarmenaren eredia onestea, udal-titulartasuneko musika-zentroak finantzatzeko laguntza publikoak emateko.

Hirugarrena.– Baimena ematea aipatutako ereduaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta kontserbatorioen eta musika-eskolen titular diren udalerrien artean formalizatzen diren hitzarmenak sinatzeko (eranskina).

Laugarrena.– Hezkuntzako sailburuari baimena ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, eranskinean zerrendatutako zuzeneko laguntzen onuradun diren kontserbatorioen eta musika-eskolen titular diren udalekin hitzarmenak sinatzeko.

Bosgarrena.– Erabaki honen testu osoa udal onuradunei elektronikoki jakinarazteko agintzea.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2021eko abenduaren 20a, astelehena

## ERANSKINA

## AKORDIOAREN LEHEHENENGO ATALEAN JASOTAKO ATALEAN JASOTAKO ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZEN ZERRENDA

Zentro kodea	Zerga kodea	Titularra	Kontserbatorioaren izena	Dirulaguntza arautua
015589	P4803400C	Durangoko Udala	CPM Bartolome Ertzilla MKP	73.000 €
014999	P4801700H	Barakaldoko Udala	CPM Barakaldo MKP	487.970 €
013005	P2007200E	Errenteriako Udala	CPM Errenteria Musikal MKP	33.580 €
012933	P2004900C	Irungo Udala	CPM Irun MKP	128.480 €
015065	P4806400J	Leioako Udala	CPM Leioa MKP	160.600 €
				<b>883.630,00 €</b>

Zentro kodea	Zerga kodea	Titularra	Musika-eskolaren izena	Dirulaguntza ez arautua
010301	P0105700I	Aguraingo Udala	EMPU Agurain MEPU	181.839,00 €
010300	P0100200E	Amurrioko Udala	EMPU Amurrio MEPU	195.682,00 €
012674	P2001000E	Andoaingo Udala	EMPU Andoain MEPU	286.014,00 €
014992	P4805300C	Getxoko Udala	EMPU Andrés Isasi MEPU	661.780,00 €
014989	P4802700G	Arteako Udala	EMPU Arratia MEPU	320.236,00 €
010323	P0101000H	Asparrenako Udala	EMPU Asparrena MEPU	125.677,00 €
014990	P4803400C	Durangoko Udala	EMPU Bartolome Ertzilla MEPU	391.749,00 €
012138	P2006600G	Orioko Udala	EMPU Danbolin MEPU	223.295,00 €
012044	P2003000C	Debako Udala	EMPU Deba Musikal MEPU	213.967,00 €
012773	P2007400A	Donostiako Udala	EMPU Donostia MEPU	1.033.488,00 €
010318	P0100100G	Dulantziko Udala	EMPU Dulantzi MEPU	128.221,00 €
012243	P2007600F	Tolosako Udala	EMPU Eduardo Moco-roa MEPU	249.360,00 €
015001	P4812400B	Erandioko Udala	EMPU Erandio MEPU	283.804,00 €
012170	P2007200E	Errenteriako Udala	EMPU Errenteria Musikal MEPU	512.970,00 €
014995	P4809100C	Portugaleteko Udala	EMPU Euterpe MEPU	251.950,00 €
013342	P2004200H	Getariako Udala	EMPU Getaria MEPU	146.717,00 €
012077	P2004300F	Hernaniko Udala	EMPU Hernani MEPU	315.683,00 €
013528	P2008500G	Zarauzko Udala	EMPU Imanol Urbietta MEPU	260.966,00 €
012772	P2003300G	Elgoibarko Udala	EMPU Inazio Bereziartua MEPU	410.363,00 €
012109	P2004900C	Irungo Udala	EMPU Irun MEPU	410.980,00 €
014988	P4802400D	Bilboko Udala	EMPU Jesús Arambarri MEPU	943.092,00 €
014987	P4802100J	Bermeoko Udala	EMPU Jose Antonio Egia MEPU	190.285,00 €
012057	P2003100A	Eibarko Udala	EMPU Juan Bautista Guisasola MEPU	262.773,00 €
012764	P2009500F	Lasarte-Oriako Udala	EMPU Lasarte MEPU	178.969,00 €
014993	P4806400J	Leioako Udala	EMPU Leioa MEPU	425.597,00 €
013188	P2000023H	Loatzoko Udalerriaren Mankomunitatea	EMPU Loatzoko MEPU	336.515,00 €
012029	P2002100B	Beasaingo Udala	EMPU Loinatz MEPU	249.069,00 €
013446	P2007700D	Urnietako Udala	EMPU Lourdes Iriondo MEPU	142.155,00 €
010314	P0106800F	Gasteizko Udala	EMPU Luis Aramburu MEPU	651.592,00 €
014991	P4804400B	Galdakaoko Udala	EMPU Maximo Moreno MEPU	361.179,00 €

2021eko abenduaren 20a, astelehena

Zentro kodea	Zerga kodea	Titularra	Musika-eskolaren izena	Dirulaguntza ez arautua
013162	P2006000J	Mutrikuko Udala	EMPU Mutriku MEPU	184.640,00 €
012934	P2006900A	Pasaiaiko Udala	EMPU Pasaia MEPU	497.788,00 €
015010	P4808000F	Mungiako Udala	EMPU Santos Intxausti MEPU	475.158,00 €
014996	P4809500D	Santurtziko Udala	EMPU Santurtzi MEPU	268.609,00 €
015011	P4805500H	Gernika-Lumoko Udala	EMPU Segundo Olaeta MEPU	287.295,00 €
015739	P4802200H	Berriatuako Udala	EMPU Tarine MEPU	178.825,00 €
012120	P2005700F	Lezoko Udala	EMPU Tomás Garbizu MEPU	254.073,00 €
012910	P2008700C	Zumaiako Udala	EMPU Txori-Txiki MEPU	271.926,00 €
014998	P4809300I	Trapagako Udala	EMPU Trapagaran MEPU	182.277,00 €
014994	P4808600C	Ondarroako Udala	EMPU Unanue`tar Pedro Mari MEPU	202.869,00 €
010389	P0106200I	Urkabustaizko Udala	EMPU Urkabustaiz MEPU	144.104,00 €
014997	P4809700J	Sestaoko Udala	EMPU Víctor Miranda Zuazua MEPU	190.308,00 €
015587	P4800300H	Amorebieta-Etxanoko Udala	EMPU Zubiaur MEPU	270.856,00 €
				<b>13.754.695,00 €</b>